



**Arartekoaren 2021R-594-21 Ebazpena, 2021eko ekainaren 16koa.** Horren bidez, EEERI gomendatzen zaio berrikeras dezala osatu gabe zeudelako PAVEA programako laguntzak ukatu zaizkien eskaeren kasua eta bermatu dezala horiek zuzentzeko izapideak ez duela aldatzen laguntzen ebazpen-hurrenkera.

### Aurrekariak

- Arartekoak hainbat erreklamazio jaso ditu, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programaren baitan (PAVEA) eskaintzen dituen laguntzetako bat eskuratu nahi dutenek egindakoak. EEERen programa horrek zuzeneko dirulaguntzak eskaintzen dizkie ibilgailu berri bat eskuratu duten eta programako baldintzak betetzen dituzten pertsoneri. Dirulaguntzak ondoz ondoko lehia araubidean esleitu ohi dira, aurkezpen-hurrenkerearen arabera eta xede horretarako finkaturiko aurrekontua agortu arte.

Jasotako erreklamazioetan, eskatzaileek adierazi dute ez daudela ados erabilgarri zegoen aurrekontua agortu izanagatik dirulaguntzak ukatu izanarekin, izan ere, laguntza-eskaerak aurrekontua agortu aurretik aurkeztu ziren.

Kasu horietan, kexagileak ez datoz bat EEERek dirulaguntzen aurkezpen-hurrenkera finkatzeko kontuan hartu duen dataarekin. Kasu horietan, dirulaguntza lortzeko erreferentzia gisa harturiko aurkezpen-data dokumentazioaren zuzenketa-data izan da, eskaera-dataren ordez.

Ildo horretatik, eskatzaileek uste dute zuzenketa-izapidea atzeratu izanak beren eskaeren aurkezpen-hurrenkera aldatu duela eta, praktikan, laguntza eskuratu ahal izatea eragotzi diela, aurrekontua EEERek dokumentazioa zuzendu dezatela eskatu aurretik agortu baita.

Halaber, zenbait kasutan, kexagileek zalantzan jarri dute zuzenketa-izapide horretan administrazio publikoek dagoeneko duten dokumentazioa aurkeztu behar izateko eskakizuna. Bereziki, dagokion foru ogasunaren zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiri bat edo ibilgailuaren zirkulazio-baimena egiaztatu behar izateko eskakizunaren kasuan.

- Jasotako kexa jakin horiei dagokienez, Arartekoak EEERa jo du osatu gabeko eskaeren kasuan eskaturiko dokumentazioa zuzentzeko jarraitu den prozedurari buruzko informazioa biltzeko. Prozedura hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera gauzatu da. Bestalde, administratuek eskubidea dute administrazioak dagoeneko duen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko, eta Arartekoak urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan arautzen den eskubide horren aitortpenari buruzko informazioa ere eskatu du.





- Informazio-eskaera horri erantzunez, EEEk balorazio zabal bat helarazi dio Arartekoari, osatu gabeko eskaerak zuzentzeko prozedurari buruzkoa eta aurrekontua agortu izanagatik zenbait eskaerari (dokumentazioa aurrekontua agortu ostean zuzendu duten eskaeren kasuan) dirulaguntza ukatu izanaren justifikazioari buruzkoa.

**a. Laguntzaren eskaera-data zehazteko EEEk erabilitako irizpidea.**

EEEren erantzunaren arabera, laguntzak PAVEAren oinarrietan eta 39/2015 Legearen 68. artikuluan eskaera zuzendu eta hobetzeko jasotzen diren aurreikuspenetan ezarritakoari jarraikiz izapidetu dira.

9. oinarriaren arabera, esleipenak ondoz ondoko lehiaren edo "jauzi bidezko" lehiaren prozeduraren bitartez egin dira. Hori horrela, lehentasun-hurrenkera, laguntza emateko orduan, eskaera osorik aurkezten den momentuaren arabera da.

Eskaera osorik eta behar bezala aurkeztean oinarritzen den ondoz ondoko lehi-sistemak honako xede eta interes publiko honi erantzuten dio: «*neurrigabekeriak ekiditea*», laguntzak erreserbatuz «*ageriz osatu gabe dauden*» eskaeren bidez. Modu horretan, oinarrietan ez da aldatzen eskaeren erregistro-data; aitzitik, laguntza aztertu eta emateko hurrenkera justifikatu bat ezartzen da, jendaurrean eta modu garden eta objektiboan finkaturiko esleipen-irizpidearekin bat datorrena.

Era berean, ez zaio berezko izaera kendu zuzenketa-eskubideari, eskaerak zuzentzeko aukera eman baita. Dena den, dokumentazioaren zuzenketa-izapideak eragina izan du eskaerak aztertzeko hurrenkera, «*toki hobean kokatzen baita modu arduratsuan jokatzeko duena eta eskaera bere osotasunean aurkezten duena; hala jokatzeko ez duenaren kalterako*».

Ildo horretatik, EEEren txostenean jasotzen den interpretazioaren arabera, PAVEAren oinarrietan eskaerak aztertzeko hurrenkera aldatu egin daiteke justifikaturiko arrazoiak daudenean, hala nola, osatu gabeko eskaeren kasuan.

EEEk adierazi du interesdunak «*ezin hobeto zekiela zein zen oinarrietan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar zuen dokumentazioa eta zeintzuk ziren zuzen zitezkeen akatsak hautemateak edo dokumentuak hurrenez hurren aurkezteak zituen ondorioak; hortaz, ondorioak onartu behar ditu*». Hori dela eta, EEEren ustez, aztertzeko hurrenkera aldatzearen ondorioz ez da babesgabetasun-egoeran jartzen laguntzak eskatzeko interesa duen pertsona, izan ere, interesdunak bazekien oinarrietan eskaturiko dokumentazioa aurkeztu behar zuela. Beraz, bere eskaeraren izapidetzean atzerapenak egon daitezkeela onartu behar du, modu arduratsuan jokatu duen eta eskaturiko dokumentazioa behar bezala aurkeztu duenaren mesederako.





**b. Administratuek eskubidea dute jada administrazioaren eskuetan dagoen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko.**

Txostenean aitortzen den bezala, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, interesdunek eskubidea dute Administrazioak dagoeneko duen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko. Hala ere, administrazio publikoek dokumentu jakin batzuk aurkezteko eskatu ahalko dute, beren kabuz dokumentu horiek lortu ezin dituztenean.

Bestalde, euskal administrazio publikoek eskubide hori betetze aldera azken urteetan egin dituzten ahaleginak azpimarratu ditu. Hala ere, PAVEA programa izapidetu eta onartzeko orduan, EEE ez zegoen oinarrietan eskaturiko informazio guztiari dagokionez elkar eragiteko moduan. Gainera, momentu honetan zerbitzuen bidez bil daitekeen informazioak ez lituzke barne hartuko eskaturiko dokumentu guztiak, Estatuko Administrazio Orokorraren Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak igorritako zirkulazio-baimenaren kasuan bezala.

Beste administrazioetan dagoen dokumentazioa eskuratzeko traba horren aurrean, oinarrietan interesdunei eskaturiko dokumentazioa aurkeztu dezatela eskatu izana justifikatu du EEEK.

Hori horrela, 2020ko urtarrilaz geroztik izapideturiko laguntza-programetan, EEEK aurreikusi du aukera dagoela beste administrazio batzuek duten informazioa eta interesdunen datuak eskuratzeko, *«betiere, NISA Eren zerbitzuen bidez eskuratzeko aukera eskaintzen bada eta interesdunak ez badio horri uko egiten»*.

Informazio hori ikusita, eta edukia aztertu ondoren, ondoko gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut:

### Gogoetak

- 1. Laguntzak eta dirulaguntzak emateko esparru juridikoa.** Lehenik eta behin, adierazi beharra dago kexa honen xedea eta Energiaren Euskal Erakundearen jarduketa laguntzak eta dirulaguntzak emateko ordenamendu juridikoan jasotako baldintzen arabera baloratu behar direla.

Kasu horretan, aipatzekoak dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa. Arau horietan ezartzen denez, administrazioaren laguntzek eta dirulaguntzek ordenamendu juridikoak arautzen dituen aurreikuspenetan eta publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioetan oinarritu behar dute.

Administrazio publikoen dirulaguntzak erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzera bideratutako diru-xedapen gisa definituta daude. Diru-xedapen hori helburu jakin bat (kasu honetan, efizientzia energetikoa hobetzea,





sektore jakin batzuetako kontsumoa eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko jarduketa sustatzea) bete behar duten pertsona publiko edo pribatuen alde egin da. Horretarako, onuradunek behar bezala bete eta justifikatu behar dituzte laguntzen esleipenaren arauetan eta oinarrietan ezarritako betebeharrak material eta formalak.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntza ematen duen administrazio-organoak laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarrietan ezartzen diren eta aldi berean oinarri horien ardatz diren arauak onartu beharko ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51. artikuluan adierazten da laguntzak edo dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten arauetan onuradunek laguntza edo dirulaguntza lortzeko bete beharreko baldintzak, epea eta horiek egiaztatzeko modua jaso behar direla.

Horrela, Auzitegi Gorenak, jurisprudenzia-doktrina irmo batean, adierazi du sustapen-politiken eta -neurrien edukia eskumenezkoa dela eta oinarrien aplikazioa arautua dagoela. 2018ko urtarrilaren 18ko Epaian (RC 53/2017), Auzitegi Gorenak honako hau adierazi zuen:

*"En primer lugar, el establecimiento de la subvención puede inscribirse en el ámbito de las potestades discrecionales de las Administraciones públicas, pero una vez que la subvención ha sido regulada normativamente termina la discrecionalidad y comienza la previsión reglada cuya aplicación escapa al puro voluntarismo de aquéllas.*

*En segundo término, el otorgamiento de las subvenciones ha de estar determinado por el cumplimiento de las condiciones exigidas por la norma correspondiente, pues de lo contrario resultaría arbitraria y atentatoria al principio de seguridad jurídica.*

*Por último, la subvención no responde a una "causa donandi", sino a la finalidad de intervenir en la actuación del beneficiario a través de unos condicionamientos o de un "modus", libremente aceptado por aquél. Por consiguiente, las cantidades otorgadas en concepto de subvención están vinculadas al cumplimiento de la actividad prevista. Se aprecia, pues, un carácter condicional en la subvención, en el sentido de que su otorgamiento se produce siempre bajo la condición resolutoria de que el beneficiario tenga un determinado comportamiento o realice una determinada actividad en los términos en que procede su concesión (STS 20 de junio, 12 de julio y 10 de octubre de 1997, 12 de enero y 5 de octubre de 1998, 15 de abril de 2002)."*

Horiek horrela, deialdiaren oinarriak edozein eskatzaile eta administrazioa gidatzen dituzten arau lotesleak dira. Modu horretan, administrazioak zorrotz aplikatu behar du oinarrietan xedatutakoa, izan ere, oinarrietan ezarritako baldintzak ez betetzea nahikoa baita dirulaguntza ez eskuratzeko. Baldintzak betetzeko





zorroztasuna dirulaguntzen aurrekontu-partiden izaera mugatuan eta eskatzaile guztien arteko lehia- eta berdintasun-printzipioan oinarritzen da. Horrela, deialdian eska daitezkeen baldintza guztiak modu zintzo eta zehatzean betetzeko betebeharraren izaera arautua dirulaguntza-eskaera guztietara hedatu behar da, izan ere, eskatzaile bati bidegabe emateak gainerakoei eragingo bailieke eta, gainera, berdintasun-printzipioa urratzea ekarriko luke.

- 2. Ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko dirulaguntzak (PAVEA 2020) emateko oinarriak.** Kasu honetan, EEEK 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenean —ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntzen programa (PAVEA 2020) arautzen duena— onaturiko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak aplikatuko dira. Oinarri horiek EHAAn argitaratu ziren 2020ko urtarrilaren 29an.

Oinarri horien arabera, laguntza-eskaerak aurkezteko epea oinarriak EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta indarrean jarraituko zuen aurrekontua agortu arte (jasotako eskaera kopuruaren arabera) edo laguntzen programa itxi arte.

Kasu horretan, 2021ko urtarrilaren 4ko Ebazpenaren bitartez (EHAAn argitaratua 2021ko urtarrilaren 25ean) jakinarazi zen PAVEA 2020 programarako finkatu zen aurrekontua agortu egin zela 2020ko abenduaren 30ean.

Nolanahi ere, EEEK bidalitako informazioan zehazten denaren arabera, PAVEA 2020 programako aurrekontua agortu zuen espedientea behar bezala eta erabat osatuta geratu zen 2020ko urriaren 2an. Arrazoi hori dela eta, zenbait espedienteren eskaerak geroago osatu ziren, lehenago eskatu ziren arren. Kasu horietan, espediente horiek guztiak ukatu egin ziren, aurrekontua agortu zelako.

Hori horrela, ondoriozta dezakegu izapidetu ziren eta dokumentazioa 2020ko urriaren 2a baino geroago eskatu zitzaizen espediente guztiek dagoeneko ez zutela dirulaguntza eskuratzeko aukera errealik.

Horren harira, beharrezkoa da oinarrietan jasotako aurreikuspenen interpretazio bat egitea prozedura-araudiaren legezko aurreikuspenen harira, erreklamazioetan zalantzan jarri diren bi alderdiei dagokienez. Honako hauek dira aipaturiko bi alderdi horiek: alde batetik, osatu gabeko eskaerak aztertze hurrenkera —zuzentzeko izapidearen kasuan—, eta beste aldetik, administratuek administrazio publikoek dagoeneko duten dokumentazioa aurkeztu behar izateko duten eskubidea.

- 3. Aztertze hurrenkera ondoz ondoko lehiaren erudian.** PAVEA laguntzen programaren 8. oinarrian adierazten denaren arabera, *“Estas ayudas se concederán de forma directa, conforme a los artículos 22 y 28 de la LGS y al Capítulo III del Título I del RGS. En consecuencia, las solicitudes serán atendidas por riguroso orden de presentación hasta el agotamiento de los fondos. En caso de agotamiento del presupuesto asignado y siempre que no hubiera expirado la vigencia del programa, podrán seguir registrándose solicitudes en lista de reserva*





*provisional, que serán atendidas por riguroso orden de entrada, supeditadas a que se produzcan desestimaciones o revocaciones de las solicitudes de ayuda previas que pudieran liberar presupuesto o bien se incorpore nuevo presupuesto a la convocatoria. En ningún caso, la presentación de una solicitud a la lista de reserva provisional generará derecho alguno para la persona solicitante, hasta que no se valide la solicitud”.*

Kasu honetan, laguntzak esleitzeko sistemak zuzeneko prozedura bat erabiltzen du, ondoz ondoko lehia edo fluxu bidezko lehia deiturikoa, eta prozedura horrek babesa izan dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.5 artikuluaen aurreikuspenean.

*5. Cuando por la finalidad o naturaleza de la subvención no se utilice la técnica concursal deberá recogerse expresamente en las normas reguladoras el carácter limitado de los fondos públicos destinados al correspondiente programa subvencional, estableciendo las consecuencias derivadas del agotamiento de dichos fondos. En todo caso, una vez agotados los fondos, se deberá hacer pública dicha circunstancia a los efectos de la paralización de la concesión de nuevas ayudas.*

Edonola ere, oinarrietan ezartzen da behar bezala formalizaturiko eskaerak aurkezpen-hurrenkera zorrotzaren arabera aztertuko direla, funtsak agortu arte.

Horretaz gain, programaren 9. oinarrian honako hau zehazten da: *Las resoluciones de las solicitudes de ayuda se realizarán mediante un procedimiento de concurrencia sucesiva, de modo que las solicitudes se examinarán y tramitarán conforme al orden de presentación y se resolverán en la medida y en el orden en que queden correctamente formalizadas y completadas. Si la solicitud fuera defectuosa y hubiera que subsanarla, se considerará como fecha de presentación la indicada en la base 7”.*

Horrela, aipaturiko oinarriak hitzez hitz aplikatuz gero, esan nahi du ondoz ondoko lehia bidezko esleipen-prozedurak lehentasun-hurrenkerari buruzko irizpide objektibo bat duela. Lehenik eta behin, eskaerak aurkezpen-hurrenkeraren arabera aztertu eta izapidetuko dira. Bigarrenik, izapidetzeko onarturiko eskaerak behar bezala formalizatu eta osatuta dauden eskaerak kontuan hartuta geratzen den hurrenkeran arabera ebatziko dira.

Ildo horretatik, laguntza-eskaerak lehentasun-hurrenkera bikoitz horri jarraikiz izapidetu beharko dira. Aurkezpen-hurrenkeraren arabera, administrazio-organo eskudunak eskaerak aztertuko ditu eta eskatzaileak bidalitako dokumentazioa kalifikatuko du. Interesdunaren eskaera kalifikatzeko egintza hori gauzatzen den egunean, dokumentazioa osatuta badago, administrazioak ebazpen-hurrenkera bat esleitu dio. Azken hori erabakigarria izango da laguntza ondoz ondoko lehia bidez eskuratu ahal izateko. Eskaera kalifikatzen den une horretan administrazioak dokumenturen bat faltan dela antzematen badu, eta dokumentu hori eskatu eta





zuzentzeko aukera badago, hori zuzentzeko epe bat eman beharko dio berehala interesdunari. Bigarren kasu honetan, dokumentazioa behar bezala jaso ostean, administrazioak dagokion ebazpen-hurrenkera esleituko dio eta izapidearekin jarraituko du, hura ebatzi arte.

Oinarrietan ez da ezartzen, inola ere, eska daitekeen dokumentazioa ez aurkeztearen ondorioz atzerapen edo berandutzeak gerta daitezkeenik osatu gabeko eskaerak izapidetzean. Era berean, ez du lehentasunik aitortzen behar bezala betetako eskaeren ebazpen-hurrenkera. Aitzitik, oinarrietan ezartzen da beharrezkoa dela formalizaturiko eskaerak sustatzea, eta horiek aurkezpen-hurrenkera zorrotz baten arabera aztertu beharko dira, eskaera-egileek eska dakiekeen eta zuzendu dezaketen dokumenturen bat zuzendu behar badute ere.

Sustapen-printzipio hori 39/2015 Legearen 71. artikuluan ezartzen da, eta honela dio: *«Prozedura, bizkortasun-printzipioa zainduz, ofizioz bultzatuko da izapide guztietan, eta bitarteko elektronikoen bidez, gardentasun- eta publikotasun-printzipioak gordez»*. Espedienteak aztertzerakoan, antzeko izaera duten auzietan prozedura hasteko hurrenkera zorrotza gordeko da, *«administrazio-unitateko titularrak ez badu kontrako agindurik ematen, arrazoiturik, jasota geratzeko moduan»*.

Kasu horretan, ez oinarrietan ez geroko aginduetan ez da jasotzen inolako arrazoirik ez zaintzeko prozeduraren hasierako (izapidetzeko onartzea eta zuzentzea) hurrenkera zorrotza eta PAVEAren eskaerak bideratu eta ebazteko hurrenkera.

Madrilgo Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 7496/2020 epaian jasotzen den bezala, lehia-prozeduretan data baloratzeko erreferentziazko data zuzenketaren data izan daiteke, eskaeraren aurkezpen-dataren orde. Edonola ere, auzitegi horren arabera, esleipen-sistema hori kontuan izanda, administrazioak arduraz jokatu behar zuen *«errekerimendua ez zedin atzeratu arrazoizko epe batetik harago»*. Alde horretatik, epai horretan ondorioztatzen da sistema horrek ez lukeela onartuko eskaeraren lehentasuna antzemandako akatsa zuzendu den data errealerara arte atzeratzea, zuzenketa hori, *«alderdi interesdunak adierazten duen bezala, Administrazioaren erruz atzeratzen denean, dokumentazioa berandu aztertu duelako eta errekerimendua eskaera jaso zuenetik bi urte baino gehiago igarotakoan egin duelako»*.

- 4. Modu desegokian aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko izapidea.** Eskaera aurkezteko interesa duen pertsonak bidaltzen duen dokumentazioan akatsen bat badago, administrazio-prozedurak, interesdunak hala eskatuta, eskaera zuzendu eta hobetzeko izapide bat ezarri du bere hasierako fasean. Izapide hori interesdunaren asmoa behar bezala formalizatzen dela ziurtatzeko berme bat da. Kasu horretan, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezartzen denaren arabera, prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen prozedura hasteko eskatzen diren betekizunak, administrazioak errekerimendua egingo dio interesdunari hamar eguneko epean akats hori zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak aurkez





ditzan. Hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko da. Zuzenketa-izapide hori onargarria da era berean hautaketa- edo norgehiagoka-prozeduren kasuan.

Halaber, izapideak ezingo du ezein kasutan aldatu eskaeraren aurkezpen-data, izan ere, 68.4 artikuluan ezartzen denaren arabera, inguruabar hori honako pertsona hauentzat bakarrik aurreikusten da: administrazioarekin harremanetan modu telematikoan jarri behar diren arren, idatziz egitea erabaki dutenak. Kasu horietan bakarrik hartuko da zuzenketaren data eskaeraren aurkezpen-datatzat.

Ildo beretik, PAVEA laguntza-programaren oinarrietako bederatzigarren oinarria interpretatu behar da, honako hau dionean: *"Si la solicitud fuera defectuosa y hubiera que subsanarla, se considerará como fecha de presentación la indicada en la base 7ª"*.

Hori horrela, oinarrien zazpigarren puntuan honako hau adierazten da: eskaerak oinarri hauetan eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, osatu gabe badago edo akastuna bada, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzendu dezala hamar egun balioduneko epean.

39/2015 Legearen 68.4 artikuluan ezartzen den bezala, eskaeraren aurkezpen-dataren ordez zuzenketaren data jartzeko aukera izango dute bakar-bakarrik eskaera elektronikoki aurkeztu behar zuten arren, aurrez aurre aurkeztu badute.

Zuzenketa-izapide horrekin batera, aukera ematen da eskaeran akatsak zuzentzeko, baina inola ere ezin dira zuzendu oinarrizko akatsak. Kasu horretan, komeni da bereiztea laguntzak eskatzean egin ohi diren funtsezko edo oinarrizko akatsak eta dokumentazioa aurkezterakoan egin ohi diren akats zuzengarriak.

- **Zuzendu ezin daitezkeen funtsezko edo oinarrizko akatsak.** Alde batetik, laguntza-eskaera betekizunak bete gabe edo eskaera gauzatzeko funtsezko dokumentaziorik gabe aurkeztuko balitz, eskaera ukatu beharko litzateke, 39/2015 Legearen 88.5 artikuluan aurreikusitako oinarriak ez betetzeagatik. Horren adibide dira honako kasu hauek: ibilgailuaren salerosketarik gabe egindako laguntza-eskaera bat, ibilgailuaren titulartasuna ez izatea edo, deialdiarekin bat ez datozelako, zuzendu ezin daitezkeen bestelako akatsak egotea.
- **Funtsezkoak ez diren eta zuzendu daitezkeen akatsak.** Beste alde batetik, zuzendu daitezkeen akatsak aipatu behar dira; horien artean sartzen dira eskaeran egin ohi diren akatsak dagoeneko badagoen eta behar bezala aurkeztu ez den dokumentazioaren kasuan.

Auzitegi Gorenaren 2012ko martxoren 15eko Epaian (4568/09 kasazioa) gogorarazten den bezala, *"...La subsanación de defectos o de omitidos documentos preceptivos que prevé el artículo 71 LRJ y PAC se refiere a aquellos defectos o documentos que afectan al propio procedimiento instado y no al fondo (cuestión material) de la resolución que pudiera adoptarse en dicho procedimiento."*







*b) Es decir el requerimiento de subsanación es procedente y preceptivo respecto de aquellos defectos/ omisión de documentación determinantes de la procedencia (deberíamos decir improcedencia que es lo que determina tales defectos) del procedimiento en sí mismo, esto es de la iniciación y consiguiente curso procedimental hasta llegar a la resolución de fondo (obsérvese que los defectos afectan a la solicitud de iniciación). No es procedente ni preceptivo respecto de aquellos defectos u omisión de documentos que afectan a los requisitos no procedimentales es decir, a los requisitos afectantes al derecho para cuyo reconocimiento se insta (requisitos materiales afectantes al derecho y no al procedimiento administrativo)... ".*

Laburbilduz, lehia bidezko administrazio-prozeduretan, zuzenketak dokumentu zehatz bat aurkeztean gertatu den akatsa zuzentzeko aukera ematen du, baina ez luke aukera emango epez kanpo dokumentu bat "ex novo" aurkezteko; arrazoi soil batengatik: ezin baita zuzendu existitu ez zena.

Arartekoaren ustez, hori izan behar da bidea «ageriz osatu gabe dauden» eskaeren bidez laguntzak «erreserbatzera» bideraturiko praktikak saihesteko.

Herritarrak dokumentazioa zuzentzeko duen bermeak ezin du inola ere aldatu edo zehatu interesduna. Hori horrela, administrazioak, eskaerak onartzeko aurretiazko fase horretan, ofizioz sustatu behar du, hala badagokio, dokumentazioa zuzentzeko errekerimendua, eta osatu gabe dauden eskaerak inola ere ezingo dira atzeratu, geroratu edo zehatu horiek igortzeko ematen den 10 eguneko epetik harago.

- 5. Administratuek administrazioak dagoeneko duen dokumentazioa aurkeztu behar ez izateko duten eskubidea.** Arartekoaren aburuz, kontu oso ezberdina da EEEK eskatzen duenean interesdunak behar bezala aurkeztu ez duen dokumentazioa aurkeztu behar duela «administrazio publikoek» dagoeneko dokumentazio hori duten kasuetan.

Hain zuzen ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jarduleak dagoeneko dituen edo beste administrazio batek egin dituen agiriak berriro ez aurkezteko.

Ildo beretik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluko d) atalean ezartzen da interesdunek eskubidea dutela prozedurari aplikatzekoak diren arauetan eskatzen ez den datu eta dokumenturik aurkeztu behar ez izateko, administrazio publikoen esku badaude jada edo haiek prestatuak baldin badira.

Kasu horietan, administrazio jarduleak ofizioz kontsultatu edo bildu beharko ditu dokumentu horiek, betiere, interesduna ez badago horren aurka. Hori izango litzateke honako dokumentu hauen kasua: kexagilearen nortasun-dokumentazioaren egiaztagiria, zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiri eguneratua —foru ogasun eskudunak igorria—, edo, hala badagokio, Estatuko





Administrazioaren Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren datu-baseetan agertzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren ziurtagiria.

Ildo horretatik, aurrekarietan aipatutako ahaleginak gorabehera, PAVEA 2020 laguntzen deialdiaren kasuan, administrazioak ezin izan du bermatu modu eraginkorrean interesdunak edozein administrazio publikoren eskuetan dagoen dokumentazioa ez aurkezteko duen eskubidea.

EEEk adierazten duen bezala, geroagoko dirulaguntza-deialdietan (2020ko ekainaren 30eko Leihoen Renovean) posible izan da eskubide hori partzialki jasotzea. Kasu horietan, EEE gai izan da honako hauek modu automatikoan egiaztatzeko: eskatzailearen NANA, zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria eta errolda-ziurtagiria, eskatzailearen ohiko etxebizitza elkarreragingarritasun-zerbitzuetara atxikitako udalerrri batean baldin badago.

Hala ere, kontuan izan behar da administrazioa elkarreragingarritasun-zerbitzuen sistema beste administrazioetara egokitzeko gai ez izatea ez dela arrazoa interesdunaren eskubidea ez aitortzeko, edo behintzat, ez dio kalterik eragin behar ondoz ondoko lehia bidezko prozeduran.

Kasu horretan, aipatu behar da interesdunak ez dituela pairatu behar administrazioaren lotura- eta interrelazio-sistema baten konfigurazioa izateko ezintasunak eragiten dituen ondorio kaltegarriak, interesdunari ezin baitzaio ukatu dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Hori horrela, kasu horietan, administrazioak ezin dio ardura falta egotzi dokumentazio hori aurkeztu ez izanagatik. Are gutxiago, egoera horrek ez luke eragin beharko atzerapenik edo antzeko ondoriorik laguntza-eskaeran, zuzenketa-izapide bat eskatu izanaren ondorioz.

Erakunde honen ustez, hori kontuan izanda, EEEk jasotako irizpidea berrikusi beharko litzateke eskaturiko dokumentazioa EEEk edo beste edozein administrazio publikok duen kasu horietan. Adibidez, egiaztatu daitekeen dokumentazioaren kasuan, hala nola, honako hauek: eskatzailearen NANA, zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiri eguneratua —foru ogasun eskudunak igorria— edota Estatuko Administrazioaren Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren datu-baseetan agertzen den ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren ziurtagiria.

Kasu horietan, eskaeren hurrenkera zaintze aldera, administrazioak eskaera kalifikatu eta horren zuzenketa onartu behar zuen unera arte atzera eraman beharko luke espedientea, eskatzailea zehatu gabe aurkezpenean atzeratu izanagatik, izan ere, eskatzaileak ezin izan baitu aurkeztu dokumentazioa administrazioak berak izan dituen zailtasunengatik elkarreragingarritasun-zerbitzuak ezartzerakoan. Zailtasun horiek eragotzi dute, hain zuzen ere, administrazioek dagoeneko duten dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea baliatzea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





## GOMENDIOA

Arartekoak Energiaren Euskal Erakundeari gomendatzen dio osatu gabe zeuden eskaerak aurkezteagatik ukatu diren laguntzak berrikusteko, baldin eta ukatzeko arrazoia zuzenketa-izapidearen atzerapena izan bada eta, bereziki, beste administrazio batzuen eskuetan dagoen dokumentazioa eskatu bada.

Beraz, kasu horietan, EEEK erabaki beharko luke atzeraeragina ezartzea administrazio-jardunak egin behar badira prozeduraren hasierako fasean eskaerak berriz baloratzeko eta eskaeraren zuzenketa-izapidea nahiz beste edozein administraziok duen dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea babesteko. EEEK ziurtatu beharko luke modu egokian zuzendutako eskaeren ebazpen-hurrenkera ez dela aldatuko, modu egokian formalizatu diren PAVEAren beste eskaerekin alderatuta.

Era berean, Arartekoak honako hau iradoki du: hurrengo laguntzen deialdietako oinarrietan, ondoz ondoko lehia bidezko prozeduretan, behar bezala bermatu daitezela urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako eskubideak, eskaeren aurkezpen-hurrenkerari, horren ofiziozko sustapenari, eskaera zuzentzeko bermeari eta beste administrazio publiko batek dagoeneko duen dokumentazioa ez aurkezteko eskubideari dagokienez.

